

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

UDALBATZAK 2019KO URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIZKO BATZARRAREN AKTA

BERTARATUAK:

IGOR ETXANIZ URRUTIA JAUNA (**EH Bildu**).- Alkatea
MARCELO TOTORIKA IBAIBARRIAGA jauna (**Aldatuz**)
JOSU MURGIA GLEZ. DE MENDOZA jauna (**Aldatuz**)
ALBERTO INTXAURRAGA GOTI JAUNA (**EAJ-PNV**)
JOSU LARRION MAESO JAUNA. (**EAJ-PNV**)

Arteako Elizatean, bi mila eta hemeretzi urtarrilaren 25ean, Udalbatza batzartu zen, ohizko batzarrean, udaletxeko batzar aretoan, 10:00tan lehen deialdian, Igor Etxaniz Urrutia Alkatearen lehendakaritzapean, eta Xabier Irazabal Basabe jauna idazkaria izanik. Iker Atutxa eta Gorka Beitia ezin izan dira etorri.

1.- 2018-12-10EKO EZ-OHIZKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BEHAR BADA.

2018-12-10eko Ez-Ohizko Osoko Bilkuraren akta onartu da.

2.- 2018-12-19KO OHIZKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BEHAR BADA.

2018-12-19ko Ohizko Osoko Bilkuraren akta onartu da.

3.- 135/18-6/19 DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak hurrengo Alkatetza Dekretuen berri eman du:

- 135/19tik 6/19arteko Alkatetza Dekretuak

Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Guk hemen dekretu batzuei buruzko galderak ditugu:

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

- 143/18.- Esleipen honekin ez gaude ados, guk beste lehentasun batzuk ditugulako, horma eta espaloia egitea baino.
- 2/19.- Zarataren ikerketa dela eta azalpen bat nahiko genuke. Alkatea: Landalurraren Ordezko Arauen Aldaketa bat martxan dago eta Aldundiak eskatu dingo honekin batera Ugarte auzoko zaratari buruzko ikerketa bat egitea.
- 138/18.- Arteako Mapa egitearen esleipena. Alkatea: Arteako Mapa egiteko dirulaguntza eskatu dugu. Asmoa da mapa bat egitea, leienda batekin, monumentuak zeintzuk diren aipatu, herri bideak markatzea, beste aldean kale zerrenda egongo da, eta ortofotoan ibilbide batzuk zehaztuko ditugu. Gainera nahi dugu Herriko Plaza orokorregia dena, joan zehazten kale ezberdinetan.
- 144/18.- Saneamendua Ekomuseoan EKINen faktura. Zer egin da? Alkatea: Ekomuseoak ez zeukan potzu septikorik eta egin da. Ezin izan da kolektorera sartu kotak ez zutelako ematen.

4.- “HARRITI TALDEA”REKIN HITZARMENA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Alkatea jaunak hurrengo hitzarmena aurkeztu du:

“Artean, 2019korenan

BATUTA

Alde batetik, Igor Etxaniz Urrutia jauna, ARTEA UDALako Alkatea, Udalaren izenean eta bere ordezkari legez, eta hitzarmen honetan Udala konprometitzeko ahalmenarekin.

Eta bestetik, Amagoia Santakoloma and, HARRITI NESKA TALDEaren izenean (nif) eta bere ordezkari legez, eta hitzarmen honetan Udala konprometitzeko ahalmenarekin.

Parte hartzaileak alkar onartzen diote ahalmen legala hitzarmen honen bitartez euren burua eta ordezkatzan dituzten istituzioak konprometitzeko eta beraz, modu aske batetan,

AITORTZEN DUTE

I.- HARRITI Neska Taldea, Artea herriko, herri kirolak egiten dituen emakume talde bat da, eta bere entrenamenduak aurrera eramateko, Arteako Kiroldegia eta Ekomuseoko probalekua leku aproposa ikusten dute.

II.- Arteako Udalak emakumeen kirola eta hauen gizartean parte hartzea bultzatu nahi ditu.

III.- Guzti horregaitik, eta alde bien interesa izanik egoera hau konpontzea, modu adostuan, borondatez, hurrengo

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

ADOSTEN DUTE

1.- Arteako Udalak hurrengo konpromesuak hartu ditu:

- Taldeak Ekomuseoko probalekua erabili ahal izango du bere entrenamenduak burutzeko, eta horretarako beharrezkoa duen materiala (arnesak, egitura,...) gordetzeko leku estali bat utziko dio.
- Arteako Kiroldegian entrenatzeko, gehienez 10 txartel nominatibo utziko dizkio.

2.- Harriti neska taldeak, erakustaldi bat egin beharko du urtero gutzienez, Arteako herrian. Bere jantzi eta erakustaldien karteletan, Arteako Udalak laguntzen diela esan beharko dute.

3.- Hitzarmen honek sinatzen denetik bost (5) urteko iraupena izango du..

Eta horrela agertzeko, eta behar diren ondorioak izateko, sinatzaileak, goian agertzen den epe eta leku honetan, ale bi sinatzen dituzte”

Gaia aztertu eta gero Udalbatzak AHO BATEZ hurrengo erabakia hartu du:

1.- Goian agertzen den Arteako Udala eta Harriti Taldearen arteko hitzarmena onartzea.

2.- Alkate jauna ahalmentzea, Arteako Udalaren izenean hitzarmen hau sinatzeko.

3.- Hitzarmen hau indarrean sartzea baldintzatuta dago, Harriti Taldeak, pertsonalitate juridikoa lortzeko, Kirok talde legez, edo irabazi gabeko talde legez. Ordurate, hitzarmenak ez du baloirik izango.

5.- “ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA- HAZI FUNDAZIOA”REKIN HITZARMENA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Alkate jaunak hurrengo hitzarmena aurkeztu du:

“LANKIDETZA HITZARMENA

**EUSKADIKO LANDA INGURUNEAN BASO BIOMASAREN
ERABILERA ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNA**

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

SUSTATZEKO ENERGIA XEDEAREKIN XXXXXXXXXKO UDALERRIAN

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA - HAZI FUNDAZIOAREN

ETA

XXXXXXXXXXXXKO UDALAREN

ARTEAN

Xxxxxxx(n), 201Xko Xxxxxaren XX(e)an

BILDURIK

Alde batetik, **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA** (aurrerantzean “**EEE**”), Bilboko Urkixo zumarkaleko 36, 1. solairua, Bizkaia plaza eraikinean, 48011 helbideratua, IFZ Q5150001E duena. Haren izenean eta ordezkartzan Iñigo Ansola Karega jn., 78.871.810-A zenbakidun NANaren jabe izanez, EEEko kontseilari-zuzendari nagusia den aldetik eta hitzarmen hau egiteko eman zaizkion ahalmenak erabiliz, eta

HAZI Fundazioa (aurrerantzean “**HAZI**”), Arkauteko Granja Modelo z/g, 01192 Arkaute, Araban helbideratua, IFZ G48986137 duena. Haren izenean eta ordezkartzan Asier Arrese Zabala jn., 35.776.412-G zenbakidun NANaren jabe izanez, jarduneko zuzendari nagusia den aldetik eta hitzarmen hau egiteko eman zaizkion ahalmenak erabiliz.

Bestetik, **XXXXXXko Udala**, XXXXXXXX kalea, XXXXXXXX, XXXXXXXX helbideratua. Haren izenean eta ordezkartzan XXXXXXXX jn./and., XXXXXXXXX zenbakidun NANaren jabe izanez, jarduneko alkatea den aldetik eta hitzarmen hau egiteko eman zaizkion ahalmenak erabiliz.

Aldeek, ordezkartzen duten erakundeen izenean, elkarri aitortzen diote lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko behar besteko lege ahalmena.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

ADIERAZTEN DUTE

I. EEE, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren (EGLS) menpekoa dena, azaroaren 24ko 9/1982 Legearen arabera eratua, martxoaren 13ko 7/1998 Legeak aldatu zuena, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) energia premiei erantzuteko sortu zela. Alde horretatik, EEEri esleitutako jarduerak, besteak beste, hauek dira: Euskadin energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzera eta energia berriztagarrien aprobetxamendua hobetzera zuzendutako ekintzak gauzatzea.

II. HAZI, fundazio publikoa eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren (EGLS) menpekoa dena, ekainaren 17ko 12/1994 Legearen eta indarrean dauden gainerako arau xedapenen arabera sortu zela. Irabazi asmorik gabeko erakunde gisa eratua, honako helburu hau du: lehiakortasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza bultzatu, sustatu eta garatzea bere jardun eremuan, hau da, lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa ingurunean, itsasertzean eta elikadura industrian; betiere, bertako ondare natural eta kulturala balioesten eta mantentzen lagunduz.

III. EEEk eta HAZIk, 2013ko ekainaren 18ko datarekin, lankidetzak hitzarmen bat sinatu zutela, Euskadiko landa ingurunean baso biomasaren erabilera eta aprobetxamendua sustatzeko energia xedeekin.

Aipatutako bi erakunde horien helburua da EAEko udalei laguntza eta aholkularitza ematea, biomasa baliabide gisa erabiliko duten energia proiektuak garatu nahi dituzten udalei, hain zuzen ere. Laguntza eta aholkularitza horren barruan honako hauek leudeke: egoera naturalean ateratzea eta aztertzea, energia termiko bihurtzea, horretarako diseinatutako eraginkortasun handiko instalazioetan, tokian tokiko udalaren premietara egokitutako ustiapen plan eta ereduaren arabera, egungo finantzabideekin bat etorritik, eta zenbait lekutatik hel daitezkeen funtsak baliatuz eta egokituz.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak horrelako proiektuak garatzeko behar diren baliabide teknikoak jarri nahi ditu euskal udalen eskura, modu antolatuan eratuta eta arrakastatsua izan daitezen jarraibideak eta laguntza emanaz.

IV. XXXXXXXXXko Udalak interesa du ...

V. Aurreko guztia aurrera eramate aldera, alde guztiek interesa dutela lankidetzak hitzarmen hau sinatzeko, jarraian azaltzen diren klausulen arabera.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

KLAUSULAK

1.) Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da EEE-HAZIren eta XXXXXko Udalaren arteko harremana arautzea, tokiko baso baliabidearen aprobetxamendua eta biomasa mota horren energia erabilera sustatzeko XXXXXX udalerrian.

Lankidetzaren bidez lortu nahi diren helburu orokorrak hauexek dira:

1. Balio katearen kudeaketan interesatuta dauden alde guztien jarduera koordinatzea, baso baliabidea dagoen lekutik energia termikoa kontsumitzen den gunetaraino.
2. Tokian tokiko baso baliabidea erabiltzea.
3. Basoen kudeaketa iraunkorra egitea.
4. Toki mailan enplegua sortzea.
5. Energia berriztagarrien garapen eta ezarpenean aurrera egitea, tokiko baso baliabidearen energia balorizazioaren bidez, energia eraginkortasuna bultzatuz, erabiltzen diren erregaien dibertsifikazioa areagotuz eta energia-kostuak murriztuz.
6. Berotegi efektuko gasen igorpenen murrizketa lortzea.
7. Erakundearen arteko lankidetzaren sustatzea.

2.) EEE-HAZIren betebeharrak

Lankidetzaren bidez Hitzarmen honen arabera, EEE-HAZIren betebeharrak izango dituzte:

1. Tokiko baso baliabidea aztertze eta kudeatzeko behar diren azterlanak egitea

- Dagoen baso baliabidea kuantifikatzeko eta areagotzeko azterlan zehatzak garatzea.
- XXXXXX udalerrian energia premiak asetzeari begira, baso eragileak eta kudeaketa bide jakinak zehaztea.
- Ateratzeko eta logistikari lotutako jarraibideak prestatzea, baso baliabidea menditik modu egokian atera, bihurtu, garraiatu eta biltegitzeko, energia baliabide gisa baliatu ahal izateko.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

2. Energia premiak eta instalazio egokienak ezagutzeko aurretiazko azterlan zehatzak egitea

- Egungo energia kontsumoen azterketa.
- Egungo egoeraren alternatibak izan daitezkeen bideak jorratzea, biomasaren erabileran oinarritzen diren sorkuntza eta banaketa termiko sistemen bitartez.
- Proposatzen diren alternatiben aurretiazko bideragarritasun tekniko-ekonomikoari buruzko azterketa.

EEE-HAZIk Udalari baso baliabidearen azterketa eta aurretiazko energia azterlana aurkeztu eta emango dizkio.

3. Konponbide tekniko globala zehazten laguntzea eta finantzatzeko bideak erabakitzea

- Aproposenak irizitako instalazio eraginkorren energia premietara egokitzea egungo biomasa baliabidea.
- Garatu nahi den proiektura ondoen egokitzen diren finantzabideak identifikatzen laguntzea (finantzaketa propioa, ESE eskemaren arabeko finantzaketa, funtsen eskuratzea, etab.).

EEE-HAZIk Udalari baso baliabidearen azterketa eta energia azterlana aurkeztu eta emango dizkio.

4. Proiektuaren kontratazio publikoaren prozesua

Udalak proiektua kontratatzea erabakitzen badu, EEEK eta HAZIk aholku emango diote kontratazio agiriak edo pleguak idazteko.

3.) XXXXXXXko Udalaren betebeharrak

Lankidetzaz Hitzarmen honen arabera, XXXXXXXko Udalak betebeharrak izango ditu:

1. Baso baliabidea aztertzeke eta kudeatzeko behar diren azterlanak egitea

Tokiko baso baliabideak identifikatzen eta udalerrian baliabide horiek kudeatzeko dauden sistemak ezagutzen laguntzea. Horretarako, Udalak honako konpromisoa hartzen du HAZIrekin:

- Eskura dituen mendi publiko, erabilera publikoen mendien kudeaketa plan, kartografia espezifiko eta abarri buruzko informazioa eta datuak jakinaraztea edo ematea.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

- HAZIk kartografiatutako baso bideak balidatzen laguntzea, eta benetan daudenekin kontrastea egitea.
- Baso Inbentarioan dagoen baso errealitatea eta benetan dagoenarekin kontraste prozesuan laguntzea.
- Biomasaren inguruko logistika, bihurteta eta biltegitzeari begira, gune egokiena bilatu eta aukeratzen lankidetzan aritzea.

2. Energia premiak eta instalazio egokienak ezagutzeko aurretiazko azterlan zehatzak egitea

Udalak aurretiazko energia azterlana(k) egiteko behar den informazio guztia emango dio EEERI, eta beraz, honako hauek egiteko konpromiso hau hartzen du:

- Udal eraikinen inbentarioa egitea, tipologia eta erabileraren arabera.
- Eraikinak identifikatzea udal kale izendegian.
- Behar izanez gero, egungo instalazioen kokalekuen planoak ematea.
- Energia kontsumo errealei buruzko informazioa bidaltzea (azken bi urte osoei dagozkien energia fakturak).
- Hautatuko diren kontsumo zentroetara “in situ” bisitak egiten laguntzea.
- Hala badagokio, galdara-gela(k) eta erregaia biltegitzeko gunea(k) kokatzeko lekurik egokienak erabakitzea edo aukeratzea.
- Udal energia plangintza egiteko informazio bilera batean parte hartzea, EEERekin batera.

3. Konponbide tekniko globala zehaztea eta finantzatzeko bideak erabakitzea

EEE-HAZIk aztertutako alternatibak eta proposatu dituzten konponbideak jasotzen dituen txostena aurkeztu ondoren, Udalak konponbide horiek aztertzeaz gain, irtenbide tekniko globala ezartzeko urratsak egingo ditu eta hura finantzatzeko bide egokiena(k) zehaztuko d(it)u, HAZIren eta EEERen aholkuekuz baliaturik.

4.) Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau indarrean egongo da honako epealdi honetan: sinatzen den egunetik Udalari baso eta energiaren inguruko azterketak edo azterlanak eman arte, aldean artean bestelako akordioaren bat izan ezik edo haietako batek bertan behera uzten ez badu, 30 egun lehenago, gutxienez, adierazita.

5.) Gastu orokorrak eta berauen ordainketa

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak gauzatzeari begira, alde bakoitzak izango dituen gastuak bere kontura joango dira.

6.) Hitzarmenaren arduradunak. Jarraipen batzordea

Hitzarmen hau behar bezala garatu eta betetzeko, Jarraipen batzorde bat eratuko da, lau (4) arduradunek osatua egongo dena, EEE-HAZIk eta **XXXXXX**ko Udalak kopuru berberaz izendatuta.

Zeregin horretarako;

- HAZIk Iñaki Gerenabarrena jn. hautatzen du, edo haren ordezkoa.
- EEEK José Manuel Borque jn. hautatzen du, edo haren ordezkoa.
- XXXXXko Udalak **XXXXXXXX** jn./and. eta **XXXXXXXX** jn./and. hautatzen ditu.

Jarraipen batzordeak honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Hitzarmen honen xedean azaltzen diren jarduera eremu guztiak garatzea.
- b) Hitzarmenaren xedean egin litezkeen aldaketak eta horietan gerta litezkeen ezaugarri zehatz bakoitzaren eraldaketak aztertu, ebaluatu eta proposatzea.
- c) Hitzarmena interpretatzea eta hitzartutakoa interpretatzean edo betetzean gerta litezkeen desadostasunak konpontzea.
- d) Izaera globalarekin, alde guztientzako interesgarriak izan daitezkeen informazio eta komunikazio guztiak bideratzeko pertsonak izatea. Komunikazio teknikoaren kasuan, berriz, elkarrekin aurrera eramango dituzten proiektu bakoitzaren arduradunek bideratuko dituzte informazio eta komunikazioak; betiere, Informazio horien konfidentzialtasuna kontuan hartuz.
- e) Hitzarmena era egokian garatu eta betetzeko behar den beste zeregin batzuk gauzatzeko, alde guztien interesen mesedetan.

Aldeetako batek eskatzen duenean bilduko da Jarraipen batzordea.

7.) Hitzarmenaren aldaketa

Hitzarmen honen xedapenetan, klausuletan eta baldintzetan gerta daitezkeen edozein aldaketa alde guztien berariazko akordioz egin beharko da, eta horrela gertatuz gero, jatorrizko dokumentuari erantsiko zaion klausula aldagarri gisa idatzi beharko da.

8.) Suntsiarazteko zioak

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Aldeetako batek Hitzarmen honetan hartutako konpromisoren bat betetzen ez badu, besteak Hitzarmen hau suntsiarazteko eskubidea izango du.

Hitzarmena suntsituko balitz, aldeek, elkar hartuta, Hitzarmenari amaiera emateko baldintzak eta, hala badagokio, egin beharreko konpentsazio ekonomikoak zehaztuko dituzte; batez ere, 3.4 klausulan aurreikusitakoa.

9.) Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta haren interpretazioan eta garapenean lankidetzaren hitzarmenarako aplikatu daitezkeen ordenamendu juridikoaren arabera arautuko da.

10.) Hitzarmenaren interpretazioa eta desadostasunen ebazpena

Hitzarmen honen edo bere gauzatzearen inguruan izan daitezkeen interpretazioaren gaineko arazoak, ahal izanez gero, aldeek arteko akordio bitartez ebaziko dira, Hitzarmenari aplikatu daitezkeen beste edozein prozedurari ekin aurretik.

Elkarren arteko akordiorik egongo ez balitz, aldeek Zuzenbideko Arbitrajera joatea erabakitzen dute, Arbitrajearen buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean ezarritakoa betez, eta horretarako arbitro gisa, Bizkaiko Jaureriko Abokatuen Elkargoko Dekano jaun/andre Txit Argia izendatzen da.

Eta horrela ager dadin, eta adostasun frogaren gisa, Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatzen da, hiru aldetatik, idazpuruan adierazten diren lekuan eta egunean.

EEEren aldetik

HAZiren aldetik

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Iñigo Ansola Kareaga jn.

Asier Arrese Zabala jn.

XXXXXXXXko Udalaren aldetik

”

Gaia aztertu eta gero Udalbatzak AHO BATEZ hurrengo erabakia hartu du:

1.- Goian agertzen den Arteako Udala eta Energiaren Euskal Erakundea-Hazi Fundazioaren arteko hitzarmena onartzea.

2.- Alkate jauna ahalmentzea, Arteako Udalaren izenean hitzarmen hau sinatzeko.

6.- “USTRUKUE GUNEA” ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Arteako Udalbatzak 2018ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran “USTRUKUE GUNEA”ren zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko baldintza pleguak eta kontrataziora ateratzea onartu zuen.

Deialdi hau, 2018-12-14an Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratu zen, 15 laneguneko epea emanaz aurkeztu beharreko eskaintzak aurkezteko. Arteako Web orrian eta Begitu aldizkarian ere argitaratu zen.

Eskaintzak jaso eta gero, eta eskaintzak betebehar guztiak betetzen zituztela baieztatu eta gero, Arteako Teknikariak hurrengo txostena prestatu du:

“GAIA: “USTRUKUE GUNEA” ZERBITZUA ALOKATZEKO ETA KUDEATZEKO KONTRATAZIO-LEHIAKETAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN GUTUN-AZALEN BALIOESPENA

TXOSTEN-ZENBAKIA: 05-19g

Kontratazio Mahaiari:

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

“Ustrukue gunea” zerbitzua alokatzeko eta kudeatzeko kontratazioan parte hartzeko aurkeztutako proposamen bakarraren gutun-azalak aztertuta, ondokoaren berri ematera nator:

TXOSTENA

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Proposamen bakarra dagoela ikusirik, lehenengo eta behin, egiaztatu da A gutun-azaleko agiriak nahikoak direla, eta Baldintza administratibo berezien orriko 21. atalean xedatutakoarekin bat egiten dutela. Bigarrenik, B gutun-azaleko proposamena aztertu da, esleipena eginez gero adierazitakoa bete dadin.

1. A GUTUN-AZALA: Lehiaketan parte hartzeko eskatutako dokumentazioa

21. baldintzari jarraiki, A gutun-azalak agiri hauek eduki beharko ditu:

-Lehiakidea norbanakoa bada, Nortasun Agiria; pertsona juridikoa bada, Elkartea eratu zeneko eskrituraren kopia (Merkataritza Erregistroan izena emanda egongo da), dagokion merkataritza-araudiaren arabera eskakizun hori galdagarria denean. Galdagarria ez denean, ostera, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da enpresaren eraketaren eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo eraketa-egintzaren bitartez, zeinetan jasota egongo diren enpresaren jarduera erauzten duten arauak; aipatu agiriak, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dira. Halaber, proposamen-egilearen Nortasun Agiria eta Elkartearen izenean jarduteko (eta hura behartzeko) frogagiri nahikoa. Ordezkarari arituz gero, Arteako Udaleko Idazkariak askietsitako ahalordea.

-Enpresa lehiakideak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 73. artikuluan xedatutako inolako debekurik ez duela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena.

-18. baldintzan ezarritako kaudimenak egiaztatzeko beharrezko agiriak. 09/17 Legeak zehaztutako edozein bideari jarraiki egin ahal izango da aipatu egiaztapena.

-Kontratua egikaritzeko giza baliabideak nahiz materialak atxikitzeko konpromisoa.

-Izenpetutako erantzukizun zibileko aseguruia (edo sinatzeko konpromisoa), zeinaren kapital aseguratuak, Udalaren aburuz, estalduraren xede den arriskua estaliko duen (zenbatekoa ez da 300.000 euro baino gutxiago izango).

2. A GUTUN-AZALA: Aurkeztutako dokumentazioa

Aurkeztutako lizitatzaille bakarrak, Estibaliz Murgia Olallak, agiri hauek aurkeztu ditu A gutun-azalean:

-Estibaliz Murgia Olallaren Nortasun Agiriaren kopia.

-Kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzeko berariazko erantzukizunpeko adierazpena.

-Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoelako adierazpena.

-Arteako Toki Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoelako adierazpena.

-Foru Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoelako adierazpena.

-Kaudimen ekonomikoa eta teknikoa:

-ESJN zerbitzu honetarako dagokion idazpuruan alta emateko konpromisoa.

-Gizarte Segurantzaren enpresa edo autonomo gisa alta emateko konpromisoa.

-300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguruia sinatzeko konpromisoa.

Lizitatzaille bakarrak aurkezturiko dokumentazioa **ez da nahikoa** kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko. Halaber, ez da aurkeztu kontratua egikaritzeko giza baliabideak eta materialak atxikitzeko konpromisoa. Interesdunak agiri hauek aurkeztu behar ditu 21. baldintzan xedatutakoa betetzeko:

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

- Foru Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Toki Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko frogagiria (Udaletxean egingo da).
- Kontratua egikaritzeko giza baliabideak eta materialak atxikitze konpromisoa.

3. B GUTUN-AZALA: Proposamen-agiriak eta balioespen-irizpideak

Lehiaketa eraentzen duten Baldintza Orrietako 21. baldintzaren arabera, B gutun-azalak dokumentazio hau eduki beharko du:

- 22. baldintzaren araberako eskaera (lehiaketan onartua izateko) eta eskaintza ekonomikoa.
- Baldintza Teknikoen Orrian adierazitako agiriak, lehiaketaren balioespenean aintzat hartzekoak egiaztatuko dituztenak (19. baldintzan adierazitako esleipen-irizpideen arabera).
- Zerbitzua garatzeko proiektua eta prezio-zerrenda.

19. baldintzari jarraiki, honela balioetsiko da proposamena:

1) Eskaintza ekonomikoa: 30 puntu, gehienez.

- Udalari ordaindu beharreko urteko errenta (dagokion BEZa gabe).
- Eskaintza ekonomikoa modu proportzionalan balioetsiko da. Horrela, eskaintza ekonomikorik handienak 30 puntu jasoko ditu; gainerakoek, ostera, dagokien puntuazioa alderantzizko proportziora.
- Gutxienez 12. baldintzan ezarritako lizitazio-oinarrira heltzen ez den proposamen oro zuzenean baztertuko da, ondorio guztietarako.

2) Hobekuntza soziokulturalak eta ingurumenarekin lotutakoak: 65 puntu, gehienez.

Kultura-jarduerak antolatzea: 25 puntu.

- Urtean, hamar (10) jarduera edo gehiago antolatzea: 25 puntu.
- Urtean, zazpi (7) jarduera antolatzea: 15 puntu.
- Urtean, gutxienez lau (4) jarduera antolatzea: 5 puntu.

Pintxo-karta bat sortzea eta eskaintzea: 20 puntu, gehienez.

- Gutxienez 8 pintxo osatutako karta bat prestatzea eta eskaintzea. Horrez gain, asteburuetan, txibierroak, salda edo etxeko espezialitatea eskaintzea: 20 puntu.
- 5 edo 6 pintxo osatutako karta bat prestatzea eta eskaintzea: 12 puntu.
- 3 edo 4 pintxo osatutako karta bat prestatzea eta eskaintzea: 5 puntu.

Genero-berdintasunarekin loturiko proposamena: 20 puntu, gehienez.

- 10 puntu jasoko ditu ardura-postuetan andrazko gehien duen proiektuak.
- 10 puntu jasoko dituzte bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeko plan bat aurkezten duten proiektuek.

3) Lan- eta gizarte-hobekuntzak: 30 puntu, gehienez.

- Lanaldi osoko kontratazio bakoitza, 5 puntu.
- Lanaldi partzialeko kontratazio bakoitza, 3 puntu.

4) Proiektuan egindako edozein motatako hobekuntzak (lanak, ordutegia, altzariak...) (20 puntu, gehienez)

- Ordutegi-hobekuntzak: 2 puntu.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

-Hobekuntza-obra edota altzariekin loturiko hobekuntzak: 8 puntu.

-Gune-lagapena: 10 puntu.

4. B GUTUN-AZALA: Agiriak eta aurkeztutako proposamena

Lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioa nahikoa da. Orobat, betetzen du lizitazio-oinarrian eskatutakoa, hau izan ezik:

- Zerbitzuan aplikatuko diren prezioak ez daude prezioen kartan jasota.

Proposamen bakarra aurkeztu dela ikusirik, eskaintzari eta hobekuntzei ez zaie punturik emango. Edonola ere, proposamenaren berri emango da, esleipenduna izanez gero eskaintza bete dadin.

- 1) Eskaintza ekonomikoa urtean 7.200 eurokoa da.
- 2) Hobekuntza soziokulturalak eta ingurumenarekin lotutakoak:
 - 3 hitzaldi urtean
 - 3 tailer urtean
 - 4 kontzertu urtean
 - Begitu argitalpenak irakurtzeko txokoa
 - Arestian aipatu jarduerak euskaraz egitea
 -
 - Egunero 8 pintxo edo gehiago prestatzea.
 - Salda (sasoi hotzetan).
 - Txorizoa sagardotan (egunero).
 - Txibierroak (asteburuetan).
 - "Hamarretako" eskaintza: arrautza frijituak, urdaiazpikoa, solomoa...
 - Eguneko menua.
 - Ogitartekoak (egunero).
- 3) Lan- eta gizarte-hobekuntzak:
 - Hiru langile (sukaldaria, zerbitzaria eta sagardotegiko langilea, guztiak emakumezkoak) lanaldi osoz ariko dira. Horrez gain, beste zenbaitek (andrazkoak) lanaldi erdiz jardungo dute, baina udan lanaldi osoz.
- 4) Edozein motatako hobekuntzak:
 - %30a Arratia haraneko produktuak izango dira
 -
 - Eraikina hauekin hornituko da:
 - Platerak, edalontziak eta kopak.
 - Sukaldeko materiala.
 - Oholak eta informazio-panelak.
 - Aterki-ontzia eta esekilekuak.
 - Terrazarako altzariak.
 - Errotuluak.
 - Zakarrontziak, hautsontziak, etab.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Eskainitako gainerako hobekuntzak ez daude behar beste zehaztuta. Hortaz, ez dira txosten honetan jasoko (lagapenatarako gunea, etab.).

Aurkeztutako lizitzaile bakarrak betetzen ditu Baldintza Orri Teknikoek eskatutako gutxieneko baldintzak.

5. ONDORIOA

Aipatu guztia aintzat hartuta, eta 20. baldintzan zehaztutakoaren arabera, interesdunari eskatu beharko litzaioke 3 eguneko epean agiri hauek aurkezteko:

- Foru Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Toki Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko frogagiria (Udaletxean egingo da).
- Kontratua egikaritzeko giza baliabideak eta materialak atxikitze konpromisoa.
- Prezio-karta zehatza (gutxienez, ondokoen prezioak: menua, pintxoak, txibierroak, zenbait edari...).

Horrenbestez, Estibaliz Murgia Olallari esleituko zaio "Arteako Ustrukea jatetxea" zerbitzu publikoa alokatzeko eta kudeatzeko kontratua, baldin eta interesdunak gorago aipatu agiriak adierazitako epean aurkezten baditu, eta interesduna Toki nahiz Foru Ogasunarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatuz gero.

Horren guztiaren berri emanda,

Hala ere, Alkate jaunak, irizpide nagusia berea denez gero, udalerrirako komenigarriena erabakiko du.

Artean, 2019ko urtarrilaren 9an

Katrin Izagirre Manterola

Arteako udal-arkitektoa

”

Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Prozesu guztiaren kontra gaude hasieratik, gure proiektua Ekomuseoa osotasunean bultzatzea delako, horregaitik kontrako botoa emango dugu.

Alkatea: Proiektua aldatu egin dugu Aterpetxea aurrera ez atera eta gero. Orain beheko solairua bakarrik atera da kontrataziora, goikaldea zabalik gelditzen da etorkizunean dagoen gobernuak uste edo nahi duen proiektua egin ahal izateko.

Josu Murgia (Aldatuz): Argitu nahi dut, esleitua ez dela nire familiakoa.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Alkatea: Esleituaren bikotea Leioako hostalaritza eskolako irakaslea da.

Gaia aztertu eta gero, Udalbatzak bozkatu egin du:

- Alde: 3 (EH Bildu+ Aldatuz)
- Kontra: 2 (EAJ-PNV)
- Abstentzioa:

Beraz, Udalbatzak hurrengo erabakia hartu du:

1.- “USTRUKUE GUNEA” zerbitzua, Estibaliz Murgia Olalla and.-ri esleitu, 7.260,00 + BEZ eurotan, onartutako Baldintza Pleguan eta aurkeztutako eskaintzan oinarrituta.

2.- Ebatzi hau, eskaintza aurkeztu duten enpresa guztiei jakinarazi.

3.- **ESTIBALIZ MURGIA OLALLA AND.**-k 10 laneguneko epean behar diren agiriak eta behin betiko bermeak aurkeztu beharko ditu. Epe horretan aipatutako agiriak ekarriz gero kontratua sinatuko da.

4.- Erabaki hau, Arteako WEB orrian eta Arteako Kontratazio Perfilean argitaratu

7.- ALKATEAK GAI EZBERDINEN BERRI EMATEA

1.- MAPArena azaldu nahi nuen.

2.- Euskaltzaindiarekin hitzarmena egin nahi dugu Arteako Toponimiari buruzkoa. Uste dugu garrantzitsua dela honekin jarraitzea.

• KONTROLERAKO ZATIA:

GALDE-ESKEAK

1.- Gorka Beitia jauna (EAJ-PNV): “Matadero deritzon eraikuntzaren egoera, erabilera, Udalari suposatzen dizkion gastuak. Eraikinaren egoera estrukturala, egoera higienikoa (komunak) eta beste edozein informazio Mataderoari buruzkoa”.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Alkatea: Mataderoa betiko legez Arteako Gazte Asanbladak kudeatzen du, asanblada barruan Torontile dago. Egoera estrukturalari buruz ez ditugu bidaltzen teknikoak, baina behar bada aginduko ditugu, uzten badigute sartzen. Badakit bere egunean argia konpondu egin zela eta komuna martxan dago.

Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Eskaera bat, idatziz dagoen bezala, ahal duzue idatziz erantzun?

Alkatea: Bai.

2.- Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Horma egin dan lekuan hasi zarete espaloia egiten, eta horren azalpena eskatu nahi dugu, guk dakigula espaloia bigarren faseko lanak dira eta hori esleitu barik dago.

Alkatea: Ez da hitzarmenik egon, eta lehengo faseko lanak jarratzea esan nuen nik, eta nire errua izan da. Egia da ez dagoela ondo eginda, zuen kexa heldu zenean segituan gelditu genituen bigarren fase horretako lanak. Parkamena eskatu nahi dizuet guzti honengatik, zeren jakinaren gainean egon naiz.

Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Udaletxean gaude eta ezin daitezke gauzak horrela eraman. Lege batzuk daude eta prozedura batzuk jarraitu behar dira. Gauza lehen baino lehen egin nahi dira gauzak baina honela ezin da. Eta batez ere, kontuta izan txirrindulari bat jauzi zela, horma egiten dagoela, baina azera egin jauzten bada, orduan zer? Eta orain zer egiten da egin diren bigarren faseko lanekin?

Idazkaria: Idazkari-Kontuhartzaile moduan eta teknikoki hitzegingo dizuet, espero dut horrelakorik berriro ez gertatzea. Bat, ezin daitezkelako egin lanak kreditu presupuestario barik, esleipen barik, direkzio barik, segurtasun koordinatzaile barik,...horrek dakartzan arazo guztiekin. Esanda dago, eta Alkateak onartu du, baina horrela ezin daiteke jokatu. Eta oso arriskutsua da. Zelan konponduko da, kreditu presupuestarioa egongo da urtarrilaren 31an, momentu horretan esleituko da, obra txiki bat delako, mugan dago, baina obra txikia da. Hortik aurrera direkzio batek hartu beharko du kargu lanena. Lan hauentzako dirulaguntza bat eskatuko da eta lanak esleitu egin behar dira. Eta lanak bukatzean zertifikatu egin beharko dira. Egin ahal izango da, baina mugan egon gara.

2019KO URTARRILAREN 25EKO OHIZKO OSOKO BILKURA

Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): EAJ moduan aztertuko dugu kasu hau, gu askotan kritikatzeko gaituzue, baina gero hau ikusten zer egin behar dugu guk?

Josu Murgia (Aldatuz): Onartzen dugu irregulartasun batzuk egon direla baina ilegala ez da izan.

Idazkaria: Irregulartasunak asko izan dira, ez da onartu fakturarik eta ez denez ordaindu, ez ilegalitatearik egon, baina faktura bat etorrira kreditu presupuestario barik ezingo zen ordaindu. Ilegalitateatik legalitateara tarte handia dago eta hemen irregulartasun asko egon dira.

3.- Alberto Intxaurreaga (EAJ-PNV): Bidali duzuen aldizkariari buruz, ulertzen dut aldizkari informatiboak ondo daudela baina aldizkari honetatik egiten dugun interpretazioa da, gauza politiko bat dela. Zati bat informatiboa da eta beste bat politikoa. Informazioa ematea ondo dago, baina mezu politikoa zabaldu nahi badituzue, guk egiten dugun moduan egin, taldeko aldizkaria atera, ez udalekoa.

Alkatea: Ados nago denon artean egin behar dela zeozer. Hurrengo aldizkaria atera orduko, beharbada lehenago batzorde bat egingo dugu.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, goizeko 10:30ak direnean,

A
l
k
a
t
e

j
a
u
n
a
k

b
u
k
a
t
u
t
z
a